

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juliana Mendizabal Guenetxea

*Berriz, Bizkaia
(1923)*

Aurkibidea



Biografia



Berrizen jaio zen 1923an, Olabe baserrian. Angel, aita, Mallabian jaio zen, baina umetan joan zen Berrizera bizitzera; ama, Isabel, berriztarra zen. 7 seme-alaba izan zituzten. Amak panderoa jotzen zuen erromerietan. Juliana Berrizko parrokiara joaten zen eskolara, hantxe zegoen-eta herri-eskola. Gerrako pasadizoak, artean umea bazen ere, ondo gogoan ditu eta gerokoak ere gaur bertan balitz legez etortzen zaizkio gogora. Txomin Lauzirika orominotarrarekin ezkondu eta 1950etik aurrera Ermuan jarri ziren andre-gizonok bizitzen San Antonio inguruan zegoen "Errotabarrin", arto-birrintzen eta gari-irintzen. Gizona tailerrera joaten zen eta berak jarraitu zuen errotaren kargu. Bi alaba izan zituzten. Ermuan ia-ia hirurogeitaka urte bizi arren, bere jatorrizko hizkera berriztarra ez du galdu.

Zintak

BRZ-001

- **Proiektua:** Ermuko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti
- **Data:** 2008-06-16
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Gonzalez, Esti

Pasarteak

1. Herriko eskolara joaten zen

- **Erref:** BRZ-001/002
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:00:38. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

Ume gehienak komentuko eskolara joaten ziren, baina bera herriko eskolara joaten zen, aita errepublikanoa zelako. Maistrak jo egiten zituen, baina ezin izaten zen etxean ezer esan. Gerra hasi zenean, eskolak itxi egin zituzten.

2. Francoren tropen etorrera

- **Erref:** BRZ-001/003
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, umea zen artean, baina ondo gogoan omen du. Aitak ihes egin zuen. Francoren soldaduak mendi gainean egon ziren. Nafarrak ziren, euskaldunak. Mairuak etorriko zirela eta neska gazteei beldurra sartzen zieten. Egun baten behera etorri eta jatekoa eta edatekoa eman zieten, baina Julianaren ama ez zen fidatzen. Julianaren anaia gazteagoa soldaduengana joanda egon zen trintxeretan eta beraiek ez zekiten umea non zegoen.</p>

3. Gerra garaiko bizipenak

- **Erref:** BRZ-001/004
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:04:41. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra garaiko bizipenak. Jende asko preso hartu zuten herrian. Beldurra. Isilik egon behar. Aita politikari handia omen zen, errepublikanoa. Orduan bi aukera zeuden, alde batekoa edo bestekoa. Hegazkinak etortzen ziren. Bi lagun hil ziren Durangoko bonbardaketan eta goizeko lauretan egin behar izan zuten hileta. </p>

4. Errepublika sasoian amak gurutzeak ipini zizkien

- **Erref:** BRZ-001/006
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:08:06. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublika aldarrikatu zutenean, elizak botatzen ari zirela eta amak gurutzeak jarri zizkien paparrean, kristauak zirela adierazteko.

5. Bonbardaketan, abadearen bedeinkapena, hilko zirelakoan

- **Erref:** BRZ-001/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Ez dago gerra baino gauza txarragorik. Hildako asko. Jendea etorri zen euren baserrira, baina han ere berdin botatzen zituzten bonbak. Durangoko bonbardaketa. Babesleku batean ezkutatzen ziren. Abade batek euren azkena zela eta bedeinkapena ere eman zien.</p>

6. San Blasetan Abadiñora erromeriara oinez

- **Erref:** BRZ-001/011
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

<p>Gaztetan Olakuetara joaten ziren erromeriara, dantzara. San Blasetan Abadiñora oinez, bost egunean jarraian. Etxeratzeko ordua izaten zuten, baina ez zuten betetzen eta beti mehatxuka ibiltzen zitzaizkien etxean. Batera eta bestera asko ibiltzekoa izan da.</p>

7. Umetako jolasak; mutilekin harrapaketan

- **Erref:** BRZ-001/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:13:52. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Panpinak nola egiten zituzten. Afariketako jolasten zuten. Mutilekin ere ibiltzen ziren harrapaketan: batzuk lapurrak izaten ziren eta besteak guardia zibilak.

8. Gerraren kalteak

- **Erref:** BRZ-001/013
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:15:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra sasoian txarto pasatu zuten. Hildakoak, preso hartutakoak... 1941ean, berriz, gosea.

9. Sorgin-kontuak, umeak beldurtzeko

- **Erref:** BRZ-001/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:18:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Osaba batek sorgin kontuak kontatzen zizkien, beldurtzeko. Iluntzen zenean ez zen argirik egoten inun eta orduan irteten omen ziren sorginak. Auzoko emakume bat sorgina eta lapurra zela esaten zieten.

10. Sakamantekasen inguruko sinesmenak

- **Erref:** BRZ-001/016
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:18:09. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Sakamantekasen inguruan esaten zituzten kontuak. Sinistu egiten zituzten denak. Orduan inork ez zizkiela gauzak behar den bezala esplikatzen eta ez zirela ondo bizi dio.

11. Ama pandero-jotzailea eta kantaria

- **Erref:** BRZ-001/019
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:22:11. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak asko kantatzen zien eta oso ahots ederra zuen. Kanta asko zekizkien eta erraz ikasten zituen. Erromerietan panderoa jotzen zuen. Baina aita kontrakoa zen, ez zitzaion gustatzen.

12. Umetako zereginak baserrian; kaletarrek jo

- **Erref:** BRZ-001/022
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:25:20. **Bukatu:** 00:26:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Umetan baserrian izaten zituzten zereginak: ganadua zaindu, ura edo egurra ekarri, artoa jorratu... Kalera errekaduak egitera ere joan behar izaten ziren, baina ez zuten nahi izaten, kaletarrek jo egiten zituzten eta. 16-17 urterekin kontuak aldatu ziren.

13. Pinu landareak erein eta saldu

- **Erref:** BRZ-001/023
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:26:50. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Pinu landareak ereiten zituzten eta gero milako paketeak egin eta landareak saldu. Diru asko irabazten zen orduan.

14. Umetan elurretan jolasean

- **Erref:** BRZ-001/025
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:29:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Umetan gustura jolasten zuten elurretan: zakuarekin goitik behera jaitsi, panpinak egin... Garai batean elurte handiak egiten zituen. Eibarrera esneak eramaten zituzten saltzeko, eta ezin treneraino iritsi elurra zenean.

15. Aurrerapenak ekarritakoak

- **Erref:** BRZ-001/026
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:29:34. **Bukatu:** 00:30:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Natura » Ingurugiroa » Zaborren kudeaketa

Laburpena:

Garai batean ez zegoen ia hondakinik; ez zegoen plastikorik. Aurrerapenak ekarri zituen gauza horiek. Hala ere, aurrerapena gauza ederra dela dio. Ezkondu arte ez zuen irratirik izan.

16. Amama ama erditzean hil zen

- **Erref:** BRZ-001/027
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:30:24. **Bukatu:** 00:31:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitari Angel `Arna´ esaten zioten. Mallabian jaio zen, baina umetan joan zen Berrizera bizitzera. Ama berriztarra zen, zortzi egun zituela ama barik geratutakoa. Garai batean emakume asko hiltzen zen erditzean. Garai bateko bizimodua gogorra. Herriko medikua. Gizarte Segurantzarik ez zegoen.

17. Abarkak sasi artean gorde eta zapatak jantzi kalerako

- **Erref:** BRZ-001/029
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:32:02. **Bukatu:** 00:33:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Lokatzaz betetako pista zuten etxetik kalera jaisteko. Abarkekin joaten ziren eta kalean zapatak jantzi, dotore ibiltzeko. Abarkak sasi artean uzten zituzten ezkutatuta.</p>

18. "Estarta", gurdiarekin pasatzeko bidea

- **Erref:** BRZ-001/030
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:33:11. **Bukatu:** 00:35:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

"Estarta" zer den. Ganaduak gurdiaekin pasatzeko bidea. Gurdi-bidea. Bera gaztetxoa zela egin zuen errepidea Aldundiak. Gero, kotxeak ere joaten ziren noizbehinka eta berritasuna zen hori beraientzat. Garai batekoek gaur egungo bizimodua ikusiko balute!

19. Sarriko emakume baten hil-kutxa eramaten gertatutakoa

- **Erref:** BRZ-001/031
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:35:05. **Bukatu:** 00:37:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean, eliz-bidetik eraman behar izaten zen hilerrira, lepoan hartuta. Bidean zeuden gurutzeetako bakoitzean errespontsu bat egin behar izaten zen. Behin Sarriko emakume baten hil-kutxa eramaten ari zirela, abadeak ez zuen errespontsurik egin, emakumea behartsua zelako. Julianaren aitari ez zitzaion ondo iruditu eta berak errezatu zuen. Biharamunean Larrinagako kartzelara eraman zuten guardia zibilek. Orduan denak zirela pobreak dio Julianak.

20. Garai batean trumoi eta oinaztu itzelak

- **Erref:** BRZ-001/033
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:39:09. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Garai batean trumoi eta oinaztu itzelak egoten ziren. Oinaztarriek jendea hil ere egiten zuten. Kandela bedeinkatuak jartzen ziren. Etxetik urrun aizkora bat jartzen zen, ahoz gora, oinaztarriak tiratzeko. Arrosarioa egunero errezatzen zuten, baina trumoiak zenean ez zuten errezo berezirik egiten.

21. Purgatorioko arimei errezatzen; goizeko seietako mezara

- **Erref:** BRZ-001/034
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:44:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Amak egunero errezatzen zien purgatorioko arima koitaduei. Orain purgatoriorik ez dagoela eta amak zenbat alferreko lan hartu zuen pentsatzen egoten da. Mezak ordu askotan egoten ziren, baina goizeko seietako mezara joaten ziren, argi egiteko lasto-eskutada isiotuta. Koskortu eta gero ere joan behar izaten zuten. Suarekin ibili arren, orduan ez zirela mendiak erretzen dio.

22. Amari Eibarrera bidean irteten zitzaion "mamua"

- **Erref:** BRZ-001/035
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:44:03. **Bukatu:** 00:47:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gogoan du mendian sua egiteko guardia zibilei baimena eskatu zietela behin. Ama eta beste emakume bat astoarekin Eibarrera joaten ziren. Bidean mamua irteten zitzaiera eta beldurrez egoten ziren. Aitak guardia zibilei baimena eskatu zien "mamu" hari aurre egiteko. Auzoko gizon bat zen, lapurretan ere ibiltzen zena. Aitak belauniko jarriarazi eta damutu eragin zion, baina inori ez zion esan sekula nor zen.

23. Ermuko Errotabarri errotakolana

- **Erref:** BRZ-001/040
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:57:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Ermuko Errotabarrira ura "Forjas Ermua" inguruko errekatik joaten zen. Senarrak bertan lan egin zuen hasieran; gero, hura itxi zenean, Zubiondon. Errekatik porlanezko ubidetxoan joaten zen ura errotara eta antapara betetzen zen. Gorpila bueltaka hastean, martxan jartzen zen errota. Senarrak laguntzen zion lantegitik etxeratzean, baina berak zuen errotaren ardura. Lan gogorra zen, pisu handia erabili behar izaten zuen eta. Mallabiar guztiak ezagutzen zituen orduan, asko joaten zitzaizkion eta. Nola "uruntzen" zen errota-harrietan.

24. Errotaren inguruko azalpenak

- **Erref:** BRZ-001/042
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:58:08. **Bukatu:** 01:00:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errotan beheko gorpila burnizkoa zen. Ura sartzean, bueltaka hasten zen eta goiko harriak martxan jartzen zituen. Denborarekin gastatu egiten ziren harriak. Zaintzeko, harriak zorrotzu eta pikatu egin behar izaten ziren. Senarrak egiten zituen lan horiek. Alde batean garia eta bestean artoa egiten zituzten, baina ohikoena artoa zen. Bezeroek artoa bertan uzten zieten eta hurrengo egunean irina jasotzera joan.

25. Jendeak irin fina nahiago

- **Erref:** BRZ-001/043
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:00:07. **Bukatu:** 01:02:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

"Urundu" berba erabili du, baina "eidxo" ere esaten zuten. Zenbat eta gehiago estutu, irina finagoa irteten zen, baina gutxiago. Askok hori nahi izaten zuten, fina hobe zen eta. Jendeak irina taloak eta morokillak egiteko edo txerriari botatzeko erabiltzen zuen. Asko gastatzen zen orduan. Jende talde handiak joaten ziren errotara astoekin. Mallabiko bat karroarekin joaten zen.

26. Errotariaren irabazia

- **Erref:** BRZ-001/046
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:03:42. **Bukatu:** 01:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Errotak zarata handia ateratzen zuen, baina ohituta zeuden. Martxa handiagoa emandakoan, zarata handiagoa. Hamar kilotik bat eurentzat hartzen zuten; hori izaten zen euren irabazia. Irin hura saldu egiten zuten gero.

27. Haurdun egonda ere, errotan lanean

- **Erref:** BRZ-001/048
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:06:42. **Bukatu:** 01:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Haurdun gelditu zenean, berdin-berdin lan egiten zuen errotan eta pisu handia erabiltzen jarraitzen zuen. 40-50 kiloko pisuak ere egoten ziren. Baserritarrek laguntzen zioten. Neguan egoten zen lan gehien. Euren etxea hotza eta umela zen. Ermua eta Eibar umelak direla dio.

28. Arto alea zakuetan errotara

- **Erref:** BRZ-001/050
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:08:39. **Bukatu:** 01:10:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Garai batean arto klase bat egoten zen. Zaku handietan eramaten zituzten baserritarrek arto aleak errotara, ondo urkuldu ostean. Lehenengo lana pisatzea izaten zen.

29. Zahia oiloentzat

- **Erref:** BRZ-001/052
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 01:10:08. **Bukatu:** 01:10:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Zahia gariaren edo artoaren azala izaten da. Irina galbahean pasatzean, goian geratzen zen zahia eta hura kendu egiten zen. Beraiek oiloei botatzen zieten. 50-100 oilo zituzten.

30. Gabonetarako ilusioa

- **Erref:** BRZ-001/056
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:16:24. **Bukatu:** 01:17:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gabonetan anai-arreba guztiak elkartzen ziren etxean eta erromeria itzelak egiten zituzten. Oilaskoa, karakolak, torradak... jaten zituzten. Ilusio handia izaten zuten; gaur egun hori galdu egin da, edozer jan dezakegulako, nahi dugunean.

31. Gizonekin dantza egitea bekatu mortala

- **Erref:** BRZ-001/060
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:20:45. **Bukatu:** 01:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Senargaiarekin ibiliz gero edo dantza lotuan eginez gero, konfesatzera joan behar. Bekatu mortala zela esaten zieten. Gaur egun bestelako askatasuna dago, nahi dena egiteko. Lehen purgatorioarekin beldurtzen zituzten eta orain ez dela esistitzen diote. Ez du federik abadeekin.

32. Ezkongabetan haurdun geratzen ziren emakumeen zoritxarra

- **Erref:** BRZ-001/063
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:23:33. **Bukatu:** 01:25:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gurasoek ez zieten azalpenik ematen bikote-harremanen inguruan. Denak ere ezjakinak izaten ziren; lagun artean hitz eginda jakiten zituzten sexu kontuak. Emakume ezkongabe bat haurdun geratzen bazen, lotsaizuna izaten zen berarentzat eta familiarentzat. Gaur egun balitz, berak bakar-bakarrik izango lukeela umea dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-31

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com